

7/22

irizpena

Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien
hurbileko salmenta arautzen duen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2022eko ekainaren 9an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 7/22

I.- AURREKARIAK

2022ko maiatzaren 19an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazkia sartu zen, eta txostena eskatu zuen *Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu-proiektuari* buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arau honek honako xede hauek ditu:

1. Hurbileko salmenta arautzea Euskadiko merkaturatze-sisteman dauden elikagaiak honako arlo hauetan eskakizunak betetzen dituztela bermatzeko: higiena eta osasuna, trazabilitatea, etiketatzea eta publizitatea.
2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 852/2004 (EE) eta 853/2004 (EE) Erregelamenduen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen diren jarduera zehatzen baldintzak eta eskakizunak arautzea lehen sektoreko produktuen kopuru txikiak hurbileko salmentaren bidez azken kontsumitzaileei hornitzeari dagokionez.
3. Oro har, lehen sektoreko elikagaiak eta/edo eraldatutakoek bete behar dituzten baldintzak xedatzea Euskadin hurbileko salmentaren bidez merkaturatzen badira, eta horien ekoizleek eta/edo merkaturatzaileek bete behar dituzten eskakizunak zehaztea.

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak eta iritziak igorri eta guztiak lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraiki. Garapen Ekonomikorako Batzordea 2022ko ekainaren 2an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen osoko bilkurak lan dezan. Bertan ekainaren 9an aho batez onartu da.

II.- EDUKIA

“Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu-proiektuak” zioen azalpena, 9 artikulua, bi xedapen indargabetzaile, lau azken xedapen eta 4 eranskin ditu.

1. artikuluan dekretuaren xedea aurkezten da, **2. artikuluan** aplikazio-eremua, **3. artikuluan** hurbileko salmentaren kontzeptua eta haren modalitateak (zuzeneko salmenta eta salmenta merkaturatze-zirkuitu laburrean), **4. artikuluan** zenbait definizio daude eta gainerako artikuluetan (**5., 6. eta 7. artikulua**) gertuko salmena egiteko bete behar diren eskakizunak zehatzen dira, baldin eta 3. artikuluan zehatzen diren modalitateetan egiten bada.

Zehazki, **5. artikuluan** lehen sektoreko ekoizleek bete beharko dituzten baldintza orokorrak aurrez ikusten dira, betiere hurbileko salmentaren bidez elikagaiak merkaturatzen badituzte. **6. artikuluan** hurbileko salmentaren bidez elikagaiak merkaturatzen dituzten lehen sektoreko ekoizleek bete beharreko berariazko eskakizunak gain, hurbileko salmentaren bidez produktu eraldatuen operadoreek bete behar dituztenak ageri dira, maiatzaren 16ko 76/2016 Dekretuan xedatutakoaren arabera, osasun-baldintzak egokitzea helduta badaude. **7. artikulua** etiketatuari buruzko baldintzak ditu, bai eta kontsumitzaileei halabeharrez eman behar zaizen informazioa ere, produktuak ontziratutak edo gabe merkaturatzen direla kontuan hartuta.

8. artikulua arau bihurtzen du administrazioek egin dituzten jardunbide oneko gidetan xedatutakoa.

Azkenik, **9. artikuluan** ikuskapenen, arau-hausteen eta zehapenen araubidea biltzen da.

Xedapenei dagokienez, lehen xedapen indargabetzailean otsailaren 26ko 26/2019 Dekretua indargabetzen da. Horren bidez, mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko eragiketei Europako babesa Euskal Autonomia Erkidegoan garatu eta aplikatzen zen. Bigarrenean, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoan erlezaintzarako laguntzei buruzko otsailaren 15eko 30/2005 Dekretua indargabetzen da.

Azken xedapenetatik lehenari dagokionez, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzen dituen maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretuaren 3. artikuluko 2. apartatuan a) tartekia aldatzen du. Bigarrenak, ordea, Ekonomia Garapen eta Azpiegitura sailburuaren eta Osasun sailburuaren 2018ko urtarrilaren 12ko Aginduaren eranskina aldatzen du “Deskribapena” apartatuko bigarren paragrafoan Horren bidez, industrialak ez diren A kategoriako arrautzetarako eskakizun higienikoak eta sanitarioak egokitzeko berezko arau teknikoak onesten dira. Hirugarrenak garapena lantzen du eta laugarrenak araua indarrean jartzea.

Ondoren, eskakizun zehatzei buruzko **4 eranskin** bildu eta zehazten dira. Lehenengoak landare laboratuen hurbileko ekoizpen eta salmentarako eskakizunak ditu hizpide; bigarrenak jateko perretxikoen hurbileko salmentarako eskakizunak; hirugarrenak erlezaintzako produktuen kopuru txikien hurbileko salmentarako eta lehen mailako ekoizpenerako eskakizunak eta laugarrenak arrautzen kopuru txikien lehen mailako ekoizpen eta zuzeneko salmentarako eskakizunak.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Batzordeak irizpena emateko aurkezten den dekretu-proiektuaren lehen helburua da elikagaiak merkaturatzean zuzeneko salmenta edo kanal laburreko salmenta arautu eta sustatzea ondoren azalduko den arau-esparru juridiko zabalaren barruan. Bigarren helburutzat du elikagaien eskakizun higienikoak eta sanitarioak, elikagaien segurtasuna, etiketatze-baldintzak, publizitatea eta aurkezpena, trazabilitatea eta elikakateko eragileen erantzukizunak betetzen direla bermatzea.

Bi helburuek dekretu-proiektuak lortu nahi dituen lehentasunezko xedeei erantzuten diete. Batetik, ekoizleen emaitza ekonomikoak hobetu nahi dira, lehen sektoreko produktuak edo eraldatutakoak gehiago merkaturatuta. Helburua da balio erantsia gehitzea, diru-sarreraren iturriak aniztuta eta lehen sektorea nahiz hark landagunearen garapenean egindako ekarpena ikusgai bihurtuta. Eta, bestetik, erraztasunak eman nahi dira kontsumitzaileek hurbileko elikagaiak eskuratzeko eta informazio argia izateko honako gai hauen inguruan: jatorria, kostua, ekoizpen-sistema eta jasagarritasun-baldintzak. Izan ere, gai horien inguruan pertsonak gero eta interes handiagoa dute.

Arau-esparru juridikoari dagokionez, Europar Batasuneko araudiak landaguneari elikakatea arautzen du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduak (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsen (LGENF) bidez landa-garapena laguntzen du) xedatutakoaren ildotik.

Europar Batasunak bere araudian eskakizun higienikoak eta sanitarioak ezartzen ditu elikagaiak betetzeko. Eskakizun horiek “higiene-paketea” deritzanean sartzen dira, eta, besteak beste, honako hauetan aurrez ikusten dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko

852/2004 (EEE) Erregelamendua, elikagaien higieneri buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 852/2004 (EEE) Erregelamendua, animalia jatorria duten elikagaien berriazko higiene-arauak ezartzen dituena. Bi erregelamenduetan aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira ekoizleak azken kontsumitzaileari edo txikizka saltzen duten tokiko establezimenduei lehen sektoreko zenbait produkturen kopuru txikiez hornitzea. Estatu kideen esku uzten dute halako jarduera-motak arautzea.

Ilido horri jarraikiz, abenduaren 9ko 1086/2020 Errege Dekretuak ekoizleek lehen sektoreko produktuen zuzeneko horniduretarako oinarritzako araudia xedatzen du. Higiene-eskakizunei dagokienez, ekoizleak zuzeneko edozein hornidura eginez gero, higiene-paketeko erregelamenduetan ezarritakoa bete beharko da.

Lehen sektorean 852/2004 (EE) Erregelamendua aurrez ikusten duen nekazaritzako produktuen higiene-araudia aplikatzeari buruz, urtarrilaren 16ko 9/2015 Errege Dekretua argitaratu zen. Horren bidez, araudia aplikatzeko baldintzak arautzen dira, eta Nekazaritza Ekoizpeneko Erregistro Nagusia (REGPA) eratzten da. Lehen sektoreko abeltzaintza-ekoizpenen kasuan, martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuak Abeltzaintzako Ustategien Erregistro Nagusia (REGA) zehaztu eta arautzen du. Euskadin erregistro horiek kudeatzea foru aldundiei dagokie, eta ekoizleek jakinarazi behar dute, erregistroetan alta ematean edo gerora, zuzeneko salmentaren bidez merkaturatzeko asmoa duten, beren produktuak bide honetatik merkaturatzen dituzten ekoizleen erregistroa izateko.

Bestalde, lehen aipatu diren erkidegoko eskakizunak nolabaiteko jarduera iraunkorrei eta estandarizazio-maila bat dutenei aplikatu behar zaie, beraz, araudiak berak egoera batzuk aurrez ikusten ditu non zuzeneko aplikazioa ezinezkoa den eta malgutasuna ematen du. Hala, ezartzen diren eskakizunak egokitu eta/edo aldatu daitezke, bai lehen sektorean ekoizteko, bai elikagaiak eraldatzeko, betiere erregelamenduek aurrez ikusten dituzten higiene-helburuak mantenduta.

Horrez gain, araudiak berak onesten du oraindik ez dela bideragarria Arriskuen Análisi eta Kontrol Kritikoko Puntuaren Sistemari (APPCC) dagozkion printzipioak lehen sektoreko ekoizpenari orokorrean aplikatzea, beraz, Higieneko Jardunbide Onen Gidak (HJOG) aplikatzea aurrez ikusten da.

Europako araudiko malgutasun-irizpideak aplikatzeko, bere eskumenaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretua onetsi zuen. Horren bidez, Euskadiko nekazaritzako elikagai-ekoizpenaren zenbait eremutan eskakizun higienikoak eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzen dira. Gainera, Euskadiko Elikagai Establezimenduen Erregistroa (ELESE) sortzeko maiatzaren 15eko 79/2018 Dekretua onetsi zuen.

Halaber, aplikagarria da abenduaren 9ko 1086/2020 Errege Dekretuak xedatutakoa. Horri esker, higieneraren arloan elikagaiak ekoizteko eta merkaturatzeko orduan EBren xedapenen barruan zenbait aplikazio-baldintza arautu eta malgutuzten dira, eta bere aplikazio-eremutik kanpo gelditzen diren jarduerak eta agintaritzak eskudunek egin behar duten arau-garapena arautzen dira.

Horrez gain, administrazio eskudunek nahitaez kontsumitzaileen eskubideak defendatu eta babestu behar dituzte, eta kontsumitzaileek kontsumitzen dituzten produktuen gehieneko informazioa izan behar dute. Beraz, aplikagarriak dira otsailaren 27ko 126/2015 Errege Dekretua, azken kontsumitzaileei saltzeko ontziratutako gabe dauden elikagaien informazioari buruzko arau orokorra onesten duena, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko urriaren 25eko 1169/2011 (EE) Erregelamendua, kontsumitzaileei eskuratutako elikagaien informazioari buruzkoa.

Bestalde, udal-eskumenekoa da hurbileko salmenta antolatzea, salmenta ibiltari gisa definitutako

kasuetan, Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera.

Gainera, 2020ko maiatzean Europako Batzordeak “Abeletxetik Mahaira” Estrategia aurkeztu zuen, Europako Itun Berdearen esparruan oinarritzko ekimen modura.

Bere helburua da elikadura-sistema zuzena, osasuntsua eta ingurunea errespetatzen duena lortzea. Elikagai osasuntsuek eta jasangarriek ezinbestez honako kontzeptu hauek batu behar dituzte: ingurumena errespetatzea, elikagai- eta osasun-segurtasuna, jardunbide jasangarrien alde elikakateko ekoizle- eta operadore-sarearen konpromisoa, landa-garapena eta kontsumo arduratsua. Funtsezkoa da eragile guztien artean elikagaiak ekoizteko, erosteko eta kontsumitzeko modua aldatzea.

Ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik elikadura-sistema jasangarrirantz trantsizioak elikagaien osasuna eta elikadura osasuntsua sustatu behar ditu. Atsegin handiz ikusten dugu dekretu-proiektuak ekintza-ildo horri eustea.

Era berean, dekretu-proiektuak oinarritzko balio bat dakar, hurbileko salmentari buruzko legedi konplexu eta anitza antolatu eta sistematizatzen baitu bi alderdi garrantzitsutan:

- Elikagaien segurtasuna eta elikagaiak bete behar dituzten eskakizun higienikoak eta sanitarioak.
- Etiketatzea eta elikagaien informazioaren trazabilitatea.

Horrez gain, EBren Erregelamenduek aplikazio-eremutik kanpo uzten dituzten zenbait jarduera osatzen ditu azken kontsumitzaileei lehen sektoreko produktuen kopuru txikiak hornitzeari dagokionez. Arauketa hori ezinbestekoa da arauaren hartzaileei segurtasun juridiko handiagoa emate aldera.

Dena den, jakitun gara ekoizle txikiek bizi duten errealitatea arauketa-araubidetik oso urrun dagoela eta, ondorioz, zaila da betetzea. Hala, gure ustez, denbora bat izan beharko lukete arau-aldaketetara egokitzeko eta trantsizioko aldi bat zehaztu beharko litzateke.

Aldi berean, aurreko guztiak duen garrantziaren kalterik gabe, hurbileko salmentan esku hartu eta hori sustatzeko beste ekintza batzuk inplementatu behar dira, besteak beste, lehen sektorea eta landa-garapenean egiten duen ekarpena ikusgaiagoak izatea, kontsumitzaileak hurbileko elikagaietara gehiago iristea edo ekoizpen eta salmenta jasangarriagorantz berregituratzea.

Izan ere, harrituta gaude proiektuak bi dekretu indargabetzea, hain zuzen ere, hurbileko salmentaren alderdi higieniko eta sanitarioekin zerikusia ez duten alderdiak arautzen dituztenean. Gure iritziz, beharrezkoak dira Euskadin nekazaritza, abeltzaintza eta elikagaien ekosistema jasangarria eraikitzeak. Erlezaintza eta mahastiak birmoldatzeko eta berregituratzeko sustapen- eta babes-proiektuez ari gara. Ez dira beste antzeko dekretu batzuekin ordeztzen.

Laburbilduz, dekretu-proiektu honek alderdi higienikoen eta sanitarioen arloan araudia argitu eta osatzen du, eta horri esker hurbileko salmentan aldeko ekosistema eratzen da, baina beste tresna batzuk izan behar ditu lagungarri ekosistema lagunkoi hori konfiguratzeko laguntzeko hurbileko salmentaren garapen eraginkorrera iritsi nahi bada.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

7. artikulua. Hurbileko salmentarako etiketatuaren eta elikagaien informazioaren eskakizunak

4., 5. eta 6. puntuetan etiketak ustezko desberdinetan izan behar duena adierazten da. Etiketan agertu behar den aipamen zehatza azaltzen denean, aipamena gaztelaniaz edo euskaraz egin daitekeela dio, “etiketarako hautatutako hizkuntzaren arabera”. Baina ez da aipatzen nori hautatzen duen eta, dirudienez, ez da kontsumitzailea. Etiketatzearen helburua osasun-kontrola eta kontsumitzaileari informatzea dela kontuan hartuta, zentzuzkoagoa dirudi etiketa bi hizkuntzatan agertzeko eskatzea edo, bidezkoa bada, hizkuntza bakoitzean etiketa duten produktuak eskaintzea eta kontsumitzaileak hautatzea.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABren iritziz egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin

Bilbon, 2022ko ekainaren 9an

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte